

Gehiegi



ndo da, Juanjo, utz dezagun euskara bakean. Edo utz gaitzala berak gu bakean. Jakin ezazu ezen, mugaren alde honetan bizi garenok ez dugula zertan kezkatu beharrik. Zapatero presidenteak adierazi duenez hizkuntza erregionalen alde dago, hauek “gehiegikeriatan erortzen ez diren bitartean”. Euskal Herrian Euskaraz bezalako erakunde integristen aurka zaude-nez gero, Zapateroren onespena jaso dezake zure euskalduntasu-nak, dudarik gabe.

Integrismoa. Kurioso da hitz batzuekin gertatzen dena. Integrismoa entzun eta integritatean edo balore batzuen zaintzean pentsatu beharrean, jendez beteriko merkatu batean beren tripak lehertzeko prest dauden yihadistak etortzen zaizkigu burura. Antzeko gauza gertatzen da erradikala hitzarekin. Gure imajinarioan koktel molotovekin zuzenki lotutako hitza izanik, ez digu berez iradokitzen gauzen erroetara jotzen duen pertsonaren irudia, edo arazoaren funtsera ailegatzeko joera.

Itsusia da integrista edo erradikala izatea. Susmagarria. Egia esanda, gure gizartean edozer gauza da zilegi, *gehiegi* ez zaren bitartean. Norbait kritikatu dezakezu, baina jarraian funtsean bere jokaera konprenitzen duzula argituz, denok garelako *humanoak*. Ezkertiarra izan zaitezke, baina kastrismoa deitoratzen duzula aurretik esanez, jakina. Birziklatzea ondo dago, garapen ereduak edo azpiegitura erraldoi eta modernoak kritika-tzeak ordea delinkuentziaren hegian koka-tzen zaitu. Gay eta lesbianen –are transexua-len!– eskubide berdintasunaren aldekoa izan zaitezke, baina zergatik izan behar dute hain estridente ekainaren 28an?

Ez dugu, ez, karrankarik nahi. Ez dugu behar. Sobetan dago.

Akaso joera honen alde-rik mingarriena feminis-moaren gehiegikeria sala-tzen duena da. Hamazortzi edo hogeituroko nire ikas-

INIGO AZKONA



Katixa Agirre



Rodriguez



Olasagarre

leen artean ere entzun izan dut “ni ez naiz ez feminista ezta matxista ere” bezalako aitortpe-nak. Horrela erdibide onarga-ri batean kokatzen direla uste dute, lortu dutela oreka edo harmonia inbidiagarri bat, aurreko belaunaldiek lortu ez dutena. Neskak izan ohi dira horrelako perlak jaurtitzen dituztenak.

* * *

Eiderrek azaltzen duen ezkerren urtzea baino larriagoa iruditzen zait beraz feminis-moaren urtzea, edo beste hitz batzuekin esanda: postfeminismoaren sorrera eta zabal-kundea. Oraindik ez dit inongo ikaslek esan berak “postfeministatzat” duela bere burua. Baina gertatuko da, halako batean, ziur naiz. Hain azkar ari da terminoa zabaltzen, non feminismoaren esparru akademikoetan ere ari diren eztabaidatzen. Akaso hobe da post-feminismoa feminismoaren segida natural gisa kontsideratzea, honen kontrako mugi-mendua baino.

Historia bukatu dela aldarrikatu zuen ame-rikar-japoniar txiki batek orain dela hogeituro urte. Modari jarraituz, feminismoaren buka-er ere aldarrikatzen da handik eta hemendik, eta post batekin bataiatu dute garai berria: post-feminismoa.

Espanian esaterako, non orain dela berrogeituro urte emakume batek aita edo senarraren baimena behar zuen bankuan kontu korronte bat zabaltzeko, gaur egun Berdintasun Minis-terio bat baldin badaukate eta biharamuneko pilula farmazietan errezetarik gabe salduko bada, nola ez dugu esango ba feminismoak

goia jo duela? Nola ez sen-titu arrakasta hutsez hil egin dela mugimendu feminista? Nola ez pentsatu, gure mendebalde eredugarri honetan bederen, borroka amaituta dagoela eta kontrakoa esaten duen edozein ahots integrista eta erradi-kala dela edo larru-jotze on baten beharrean dagoela? ■

«
Nola ez pentsatu, gure mendebalde eredugarri honetan
bederen, borroka amaituta dagoela eta kontrakoa
esaten duen edozein ahots integrista eta erradikala
dela edo larru-jotze on baten beharrean dagoela?
»